

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **2020rako zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea**

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 19an egindako bilkuran, 2020rako zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea erabaki zuen.

Udal Ogasuna arautzen duen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazten dugu hasierako onetsitako zerga-ordenantzen aldaketaren espediente osoa udal bulegoetan duzuela ikusgai; horrela, interesdunek espedientea azter dezaten eta hogeita hamar eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Agerian uzten da, erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, jendaurreko epea igaro ondoren, behin betikotzat hartuko dela.

Ondategin, 2019ko abenduaren 20an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*